

**GOBERNU KONTSEILUA MIRAMAR JAUREGIAN
CONSEJO DE GOBIERNO EN EL PALACIO MIRAMAR**

2024-08-29 Donostia-San Sebastián 29-08-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, kazetariok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko gure deialdiari erantzuteagatik.

Kurtso berriari hasiera ematen diogu gaur Miramarko jauregi eder honetan.

Eta ilusioz ekiten diogu. Ilusioz eta erantzukizun osoz.

Erronka asko eta mota askotakoak ditugu aurrez-aurre. Baina prest gaude. Prest gaude erronka hauei aurre egiteko. Pausuz-pausu. Urratsez-urrats.

Lehen egunetik esan nuen bezala, autoexijentziak bideratuko ditu gure pausuak. Hoberena eskatuko diogu gure buruari. Herri honek eta bere herritarrek bere Gobernuaren aldetik hoberena merezi dutelako.

Une honetara iritsita parentesi bat irekiko dut. Izan ere, azken asteotan hainbat ezbehar izan ditugu.

Eneritz Panaman hil zuten. Mikel eta Markelek Mont Blanc-en bizia galdu zuten. Istripu larri baten ondorioz Jokin Peronak utzi gintuen. Baita Elena eta Inesek Tanzanian ere.

Ezbehar gehiegi. Goizegi joandako bizitza gehiegi. Horiei guztiei, beraiekin batera uda honetan utzi gaituztenei, eta bere senitarteko eta lagun guztiei gure doluminak eta besarkadarik beroena. Goian Beude.

Atzean uzten ditugun udako egun hauek aukera eman digute errealitateari pultsua hartzen jarraitzeko. Jendearekin egoteko. Batekin eta bestearekin hitz egiteko eta, batez ere, entzuteko.

Noski, baita indar berrituekin bueltatzeko ere.

Sailburuek ideia hauek berak helarazi dizkidate gaur egin dugun lehen bilera honetan. Gogotsu daude, lehen egunean bezal-bezala.

Gogorarazi diet hilaren 16tik aurrera Eusko Legebiltzarrean izango dituzten agerraldietan datozen urteei begira aurrera eramango dituzten ekintzak ondo

azaldu beharko dituztela, xehetasunez. Hori da gizarteak gure partetik espero duena.

Gainera, denok ideia berarekin bat egin dugu: egun bizi dugun egoerak, nazioarteko testuinguruak, aukera asko irekitzen dizkigu. Ongizatean hazteko aukerak. Aprobetxatu behar ditugun aukerak.

Aldi berean, aurreikusi bezala, ziurgabetasuna izan da berriz protagonista nagusia azken asteotan mundu mailan: egunotan ikusten ari garen migrazio uholdea eta honek dakartzan hildako errugabeak, Ukrainiako inbasioa, Israel eta Palestinaren arteko gatazka amaigabea, berotze globalaren ondorioak, Estatu Batuetan burtsak izan duen beherakada... hamaika arazo izaten jarraitzen dugu, tamalez.

Gobernu Kontseiluaren bilerari dagokionez, eguneko gai ordena bukatuta dokumentu bat aurkeztu diet sailburuei: "Jarduera politikoan gizalegez aritzeko ituna" deitu diot.

Dokumentu honek gizartea eta Gobernua asko kezkatzen duten arazo bati lehen irtenbide bat bilatu nahi dio: politikan gehiegitan ikusten ari garen praktika txarrei atea ixtea, hain zuzen ere.

Gizartea nekatuta dago. Nekatuta dago krispazioarekin, polarizazioarekin, deskalifikazio, irain eta liskarrekin.

Ez ditu jokabide hauek onartzen. Are gehiago: gaitzesten ditu.

Jokabide hauek guztiek gizartea politikatik urruntzea bakarrik lortzen dute.

Eta egia da: politikan sinesgarritasuna galtzen ari gara. Desprestigioa goraka doa. Honek ez du ezer onik ekarriko.

Egoera honek guztiak populismoen, demagogiaren eta estremismoen indartzea dakar. Eta galdera da: hori al da gure herrirako nahi duguna?

Honen aurrean bi aukera ditugu: beste alde batera begiratu edo guztion konpromisoa bilatu. Eta kasu honetan gizarteak eskatzen diguna argi eta garbi izan beharko genuke. Gizarteak ez du liskarrik onartzen.

Ezin diogu gure buruari tranparik egin: demokrazia arriskuan eta mehatxupearan dago egun Europan.

Bere aurkako olatuak toki askotatik datoz eta indar antidemokratikoak gizartean babes handia lortzen ari dira. Gure esku dago honi guztiari fretoa jartzen hastea.

Arriskua ez da mugimendu faxista, xenofobo edo arrazistetara bakarrik mugatzen. Gizartea ulertzeko modu bakarra inposatu nahi duten pentsamolde politikoetara ere hedatzen da.

Jarrera totalitario eta autoritarioek gizartearen aniztasuna ukatzen dute eta ez dute desberdina dena onartzen.

Euskadin harresi sendoa eraiki nahi dugu, gure herrian demokrazia indartzen, sakontzen eta hobetzen jarraitu nahi dugulako.

Horregatik nire proposamena da Legebiltzarrari Itun hau helaraztea, alderdiek eztabaidatu, osatu eta aberastu dezaten. Ondoren, helburua da adostasuna lortzea eta denek bere egitea.

Hori da gaurko Gobernu Kontseiluan adierazi dudana. Dagoeneko, Ajuria Eneako bileretan parte hartu zuten ordezkari politikoek badute dokumentua.

No podemos mirar hacia otro lado: estas últimas décadas la acción política ha ido perdiendo prestigio y credibilidad.

Observamos una mayor desafección hacia los partidos políticos. Y es, también, por culpa nuestra. Debemos poner pie en pared y alzar la voz. Debemos seguir demostrando con hechos que no es nuestra forma de entender la política.

La sociedad está cansada de tanta crispación, insulto o falta de ejemplaridad.

La gente está harta de ver cómo parte de la clase política cae en discusiones estériles, de patio de colegio, pierde el respeto y alienta la polarización y el enfrentamiento.

Como Lehendakari no quiero lo que vemos en otros lugares para Euskadi. Las y los vascos no se sienten representados en esa manera de hacer las cosas. Es más, la rechazan de plano.

Nos corresponde fortalecer nuestras instituciones, nuestra comunidad política y cultura democrática.

Tal y como señalé en el pleno de investidura nos corresponde dar un salto cualitativo y, por ello, como primera medida propongo firmar un Pacto para el ejercicio de la política en Euskadi. Un pacto por una actividad política ejemplar en nuestro País.

Así se lo trasladé también a las y los líderes de los principales partidos políticos de este País en las reuniones mantenidas en julio en Ajuria Enea.

Hoy damos un paso más hacia este objetivo. He presentado ante el Consejo de Gobierno un primer documento que haremos llegar al Parlamento Vasco para que los partidos políticos trabajen sobre él, lo enriquezcan y ratifiquen después.

Es imprescindible que la ciudadanía fortalezca su confianza en la política. Y como paso fundamental, ponemos el foco en la ejemplaridad de las y los agentes políticos.

Porque el comportamiento diario de las y los representantes vascos es el principal motor para elevar ese nivel de confianza.

Cuestiones como la honestidad, el respeto, la responsabilidad, la vocación de servicio público, la lealtad, la búsqueda del bien común o la transparencia, entre otros, son principios innegociables.

Debemos desterrar el mal tono, los insultos o la propagación de noticias falsas.

Creo que en Euskadi tenemos una buena base. Practicamos una manera más constructiva de hacer política: acuerdos entre diferentes, mayor respeto al adversario, debates más sosegados... son señas de nuestra identidad que hay que preservar.

Pero debemos alimentar cada día, en cada acción, esa forma de entender y ejercer la política.

El objetivo de este Pacto no es sustituir a otros que puedan existir en nuestro País. Ni mucho menos cuestionarlos. Al contrario. Su finalidad es seguir construyendo sobre lo construido.

Hemos definido 10 puntos que consideramos una necesaria base. Un decálogo que tiene como objetivo establecer unos mínimos de comportamiento político.

Cuestiones fundamentales como el reconocimiento del diferente, la búsqueda del bien común, explorar puntos de encuentro, respetar y no utilizar para fines partidistas a la sociedad civil, rechazar la demagogia, la manipulación y las 'fake news', censurar los ataques a las y los representantes políticos y del sector público o respetar la autonomía de los medios de comunicación, por ejemplo.

Esan bezala, elkarrizketa sustatu eta akordioak bilatzeko kultura dugun herri honetan beste jauzi kualitatibo bat eman nahi dugu eta horretarako alderdi politikoei deia luzatzen diegu denok adostasunera iritsi gaitezen.

Izan ere, guztion gizalegezko jardunbideak bakarrik egingo gaitu hobe.

Besterik gabe, zuen esanetara nauzue.

Eskerrik asko!